

Bero-beroan

Urdiaindarrak eta euskara

TXERRA RODRIGUEZI *Gaur8* aldizkarian Urdiaingo (Nafarroa) euskaldunei buruzko erreportajeak arreta deitu zion. Pasarte horietako bat ekarri dugu hona, Marili San Roman, 74 urteko urdiaindarraren kontakizuna: "Behin mandatuak egitera joan ginen Altsasura. Dendakoak bazekien euskaraz, baina, *Maria pide en castellano*' esan zion. Erdaraz ikasi behar zuela-eta, erdaraz eskatzeko esan zion amari. 'Lasai egon, erosiko dut beste toki batean', esan zion amak. Eta ez zen gehiago denda hartara joan. Handik pixka batera, joan nintzen denda hartara eta amagatik galdetu

zidaten, ez zela aspaldian etorri. Nik ez zela gehiago etorriko erantzun nien. '¿Por qué no va a venir siendo amigos como hemos sido?', galdetu zidaten harrituta. Eta nik erantzun nien ama ez zela gehiago etorriko erdaraz hitz egitera behartu nahi izan zutelako.

Orain harro nago euskalduna nazelako. Lehen burla egiten ziguten asko orain euskararen aldekoak omen dira!".

Gotzon Garate beka

ELGOIBARKO UDALAK sortu du beka. Helburua euskararen ezagutza, erabilera eta hizkuntza aberastea da. Bi edo hiru urtetik behin egingo du

deialdia Udalak eta 6.000 eta 20.000 euro arteko beka izango da. Aurtengo beka jaso nahi duenak Elgoibarko toponimia bildu, sailkatu, kokatu, aztertu eta finkatzeko proposamena egin beharko du.

Wikipediak 40.000 artikulatu ditu

DUELA SEI URTE jarri zen abian Euskarazko Wikipedia eta joan den astean 40.000 artikulutara heldu zen. Interneten euskaraz dagoen entziklopediarik handiena eta osatuena da. 266 hizkuntzen artean 46. postuan dago euskara.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

BAHEA

Iñaki Arrutik Ertzaintzarekin izandako esperientzia gipuzkoa.euskara.net-en kontatua: "Nik berarekin euskaraz aritu nahi nuela eta, ezinezkoa zela zirudienez, zerbitzua euskaraz emango zidan norbait eskatu nion, jator. Berak, berriz ere, ez zekiela erantzun zidan. Nik gauza bera errepikatu nion eta ertzain taldeko arduradunarengana joan zen. Handik gutxira, arduraduna etorri zitzaidan '¿Con que con ésas estamos?' esanez. Nik, hari ere, euskaraz esan nion aurrekoari esan nion gauza bera: administrazioarekin, Ertzaintzarekin, harremana euskaraz nahi nuela. Hark, ordea, '¿Qué quieres, a las buenas o a las malas?' erantzun zidan. (...)

Aste batzuk pasa dira eta amorrua goxatu zait pixka bat. Nire buruaz, pittin bat bada ere, barre egitea ere lortu dut: TELPeko (Taller de l'Espai Lingüístic Personal) ikastarok jaso (eman ere bai bateren bat), antzeko hizkuntza-egoerei asertibotasunez aurre egiteko teknikak langai izan... eta gero hau! Nire asertibitate-maila linguistikoak ere topatu du bere inkompetentzia-maila...

Eta hurrengoan, zer? Alabarik gabe baldin banoa, 'A las buenas' euskaraz zerbitzatu nauen norbait ekarri arte planto egitea pentsatuta daukat. Eta inor ekartzen ez badu, berriz, berak erabaki dezala 'a las malas' horrek zer esan nahi duen".

TALAIAN

Esne produkzioaren kostuak estaltzea

Bi mila ganaduzale inguru, beren traktoreekin eta behi batzuekin, Euroganberaren egoitzaren aurrean manifestatu ziren joan den astean, bertako presidente berriaren aukeraketa zela-eta. Protesta horri batu zitzaizkien Euskal Herriko produktoreak, bai eta Alemania, Frantzia, Espainia, Portugal, Belgika, Italia eta Suitzakoak ere. Beste behin salatu zuten Europako esnearen sektorea jasaten ari den egoera katastrofiko, milaka esplotazioaren biziraupena arriskuan baitago. Sektore horretako milaka ustiategi, eta beraz, milaka lanpostu desager daitezke egoera ez bada aldarazten. Zer da egoera aldaraztea? Funtsezkoa: produkzio kostua estaltzea, ez gehiago ez gutxiago. Zer gutxiago, errespetatzen ari ez diren minimo hori eskatzea baino? Adibidez, Hego Euskal Herrian esnearen produkzio kostuak 40 zentimo ingurukoak dira eta ekoizleei ordaintzen zaien prezioak ez ditu 26 zentimoak gainditzen. Ipar Euskal Herrian egoera oso antzekoa da, pixka bat aldatzen da, kostuak txikiagoak dira.

Euskal Herriko eta Europako ekoizleek eskaintzaren eta eskaeraren arteko parekatzea eskatzen dute, eta esnearen merkaturaren erregulatu dadila, nekazaritzako beste produktu batzuk erregulatuta dauden bezala. Ekoizpenaren kontrolaren alde egiten dute, eta Europako kuota europarren esne kontsumora doitzearen alde. Baita ere exijitzen dute esportazioarako ematen diren laguntzak bertan behera uztea, Europako enpresa handiak subentzionatzeko baino ez dutelako balio, haiek baitira gehien esportatzen dutenak eta min gehiena egiten dietenak Hegoaldeko ganaduzaleei, batez ere Afrikako. Europako Parlamentu berriak eskuinera egin du eta beldur gara bere erabakiek, beste behin, mesede egingo diela enpresa handiei eta ez ganaduzale eta esne ekoizle txiki. Euskal Herriko eta Europako esne produktoreek mobilizatzen jarraitu behar lukete.

Juan Mari Arregi

Zergetan bildu barik, murrizketa arlo sozialean dator

KRISI EKONOMIKOTIK ateratzen ari omen gara apurka, hala entzuten da gero eta gehiago zenbait aditu eta agintariren ahotan. Finantza mundua zaintza intentsiboko unitatetik ateratzen ari ei da eta hondoratzea mundu horrek eragin bazuen, berpiztea ere hortik etorriko da.

Sinesmena hori da, edo hala saltzen da bederen. Oparotasunean, dirua inbertsio produktibora baino, irabazi itzelak eskuratzea bideratu zutenek, orain, krisi garaian, ekonomi ehuna sendotzera bideratuko dute. Halakoak saldu nahian ari dira agintariak gailurrez gailur, baina finantza mundua sakonki aldatzeko neurriei heldu barik.

Argi da ez dagoela gehiegi fidatzerik iragartze oparo horiekin. Urteko datuei begira, adibidez, Confedebak, inoizko ekonomia galera handiena aurreikusuten du EAEn (-2,8) eta enplegu galera 40.000 lagunekoa. Udalek ere piztu dute argi gorria aurtengorako aurreikusitako zenbaki gorriekin eta diputazioen laguntza eskatu dute. Diputazioek, ordea, gero eta diru gutxiago biltzen dute. 2008an 2007an baino 938 milioi gutxiago bildu zituzten EAEn eta aurtengorako ere 2008an baino gutxiago biltzea aurreikusita dago: Gipuzkoak jadanik onartu du %24 gutxiago biltzen ari dela.

Testuinguru horretan, aurrekontu murrizketa iragarpenak hasi dira jada eta Jaurilaritzak %6koa iragarri zuen joan den astean. Lasai ordea, funtsezkoenean ez baita gastu murrizketarik izango, hori da iragarri zaiguna. Ezin jakin, aldiz, funtsezkoena zer den. Ezaguna da, aldiz, hala-koetan gastu sozialak sufritzen duela.

EAE-KO EKONOMIA gailurrean onartutakoak indarrean jarrita zer gertatuko den asmatu ezinik, bai aurrera liteke diru gehiago bildu barik nekez egin ahal izango zaiola aurre egoerari eraginkortasunez, hau da, gastu soziala murriztu barik eta ekonomia produktiboa behar bezala lagunduz.

Dirua biltzeko bi modu daude, zorpetu eta zergetan bildu. Zor publikoa erabiliko dela iragartzen ari dira agintariak, baina zergetan ez dago argi zer gertatuko den. Gipuzkoako Diputazioak iragarri du goi mailako errenten zergak handitzeko asmoa duela, ikusi beharko da zenbat eta ea beste erakundeek bide bereko neurriak hartzen dituzten. Oro har, dena den, ez dago zerga bilketatik diru kopuru askoz handiagoak biltzeko esperantza gehiegi.

Dirua biltzeko bi modu daude, zorpetu eta zergetan bildu; zor publikoa erabiliko dela iragartzen ari dira agintariak, baina zergetan ez dago argi zer gertatuko den.

Azken urteetan, adibidez, Sozietateen gaineko Zerga murriztu egin da Hegoaldeko lurraldeetan, noiz eta irabazi handiko garaietan. Ez da samur ulertzekoa, baina funtsean argudiatu izan da irabaziak inbertsiora bideratu behar zirela hobeto lehiatzeko. Orain, halako irabazi handirik ez dagoenean, berdintsu argudiatzen da: jaitsi zergak, horrela ekonomian inbertitzeko erabili ahal izango da. Espainian ematen

ari den elkarrizketa sozialean, patronalak eskatu du jada gizarte segurantzako kotizazioen beherakada, eta orain ematen ez bada, etorkizunean horretarako epea jartzeko konpromisoa eskuratu nahi du egungo negoziatuetan.

Beste adibide bat Ondarearen gaineko Zerga da. Gipuzkoan ezik, Hegoaldeko beste hiru lurraldetan ezabatu egin zen iaz. Gaitza da pentsatzea orain arte presio fiskalean atzera egin bada, orain krisi gorrian bide horri sendotasunez helduko zaionik. Iruzur fiskala bera da horren adibide argienetakoa. Agintariek beraiek onartzen dute hori dela diru bilketaren egungo zulo handienetakoa, baina ez da neurri eraginkorrik ikusten gaitz honi behar bezala aurre egiteko. Europar Batasuneko presio fiskalean zerrendaren azken lerroetan dira EAE eta Nafarroa, Irlanda eta Greziarekin batera, hori ere biziki adierazgarria da. Danimarka, Suedia eta Belgika dira lehenak.

Erakundeetatik barreiatuta, "Ogasuna guztiok gara" eta halako leloak entzuten dira udaberri garaian, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga bideratzen denean, baina emaitzak ikusita, nago makillaje kontua dela gehiago, zerga politika sendoaren beharraz jabetzeko ahalgina baino. Beharbada Baleren Bakaikoa EHUKo katedratikoak eta ELAKo Mikel Novalek arrazoi dute esaten dutenean –datorren astean kaleratuko den LARRUNEN– agintariei ez zaiela komeni herritarrak zerga politikaz gehiegi jakitea. Novalek dioen bezala, "zergekin gertatzen dena azaltzen diozunean, jendea haserretu egiten da".